

Funtsezko Jarduerak

Gure proiektuak funtzionatu eta aurrera jarrai dezan, helburu argiak eta neurrizkoak eta erabiltzaileen beharrei zehatz-mehatz egokitutako diseinu praktikoa zehaztu behar ditugu, baita lan-plan urratsez urrats eta errealista bat ere. Gainera, talde-koordinazioa eta komunikazio jarraitua funtsezkoak dira. Azkenik, erabiltzaileen iritzia etengabe jasotzea eta aplikazioa hobetzen jarraitzea ezinbestekoa da, proiektua etengabe eguneratua eta erabilgarria izateko.

Beste aldetik enpresaren jarduera zerbitzuen prestazioa izango da, aplikazio baten bidez jendeari laguntza eta orientazioa eskaintzen diogulako osasun mentalaren arloan. Ez dugu produktu fisikorik sortzen edo saltzen, baizik eta erabiltzaileei behar dutenean laguntzea da gure helburua. Horregatik, gure enpresa zerbitzuetan oinarritutako enpresa bezala hartzen da, eta gure lana jendea hobeto egoten laguntzea da.

